AZILLA
19
Eguena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ilez
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "
Beldaven itzcuba

XXIV urtia | Idazkolea ta Lanakolea: Correo, 17, 1. | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.456 zenbakija

Gayak

PEÑAGARIKANO'TAR JOSEBA

Ona, emen, beste jaupari agurgari baten ixena be: Peñagarikano eta Solozabal'dar Joseba.

Etxebariа'ko Ander Deuna, Markina Etxebari esaten dautsoen eritxuba da. Eta Joseba jaupari agurgarija, antxe bixi ixan zan, eta bere jaupari-egin biar gustijak be, antxe egiten ebazan.

Eta zuzen egin be, aren zuzentasuna, eri ta erbesteko gustijen edo geyenen txalogari ixaten zan-eta.

Baña, gaxo-gaxua, zoritxareko egun baten, paxizten espe jausi zan.

Eta paxiztak, Peñagarikano'tar Joseba jauparija nor zan eta zelakua zan jakin ixan ebenian, erail egin eben.

"Kisto Bakalduna", edo eurak diñuen lez, "Cristo Rey" espanetan dabela erijotzako epayak ixenpetuten dabezan Pilatus-antzeko epaikari paxizta oreintzat, aberija mate ixatia; jayoterijari ta ama laztanaren aitzo mafalian ikasitako izkuntzeari yaoken matetasuna ta abegi ona erakustia, Josu-Kisto'ren amar agindubak alde batetik besteraño austia baño be oben aundijagua da.

Uskurtza ta Elexa Deuna'ren laidogari "katolikuen" (?) eredu lez agertuten diran txerenaren geznari orejk dagijezan erailketeak, Josu gurutzako erijotzara epatu ta untzez josita erail ixan ebenak egin ixan eben erailketa anei bidar gaiztetsigarija baño be gaiz tetsigarijaguak dira.

Ikusten diran erailketa iguingarijak ikusita be, baña, Kisto'ren jaratzaliak dirala esaten daben asko eta asko, paxizta erailtzale orei eder egin-guran begijak ere biarian ikusten dira.

"Sozialista", "komunista" edo beste edozeñek erail ixan dabela-ta, Josu-Kisto'ren kistar-bide zuzenetik urunen dabilan bada - ezpadako edozein jaupariren ixena irakurijaz goyak eta beyak joten asita ortze ta lura-gañokuak aztertuten ibiliko litzakezan jaupari-aldezlerik aldezlienak be; orainго jaupari-erailketa ikaragari onetan, ixil-ixilik geratu ixan dira-ta.

Eta euretariko asko ta asko, ixilik baño txarago: paxizten aizto erailtzaliari, aurerapidia emoten.

Eta orain ixilmaratuka ibilijaz kistarak eta "katolikuak" (?) dirala, aberjak lez arantzaka ta ifintzika irakarten dabiltzan parixetaroik, beñola Mexiko'n orduko Kalle agintarijaren aginduz jauparijen bat edo beste erail ixan ebezela-ta, arterik artu ezinda ibili ziran, Kalle mexikotar agintarija ankera zala, txerena baxen gajztua zala ta berein itz gogor karaxika oguzten.

Txerenaren kideko egiten eben orduko Kalle mexikotararen ankerkerijak, baña "katoliku - katolikutzat" agertuten dauskubezan paxizta-erekete oneik egiten dabezenakaz bardinduko ba'litzakez, ezerezian geratuko litzakez, bariz.

Eri itsuba ta paxiztei salduta dagozan jaupari asko ta askok be, baña, begi-aurian daukaguzan egi garatz oneik eztabez ikusten, edo eztabez ikusi gura.

Eta egija ikusi gura eztabelako, Goikua'ren zigora, geruago ta gogorago jausiko da, geure buruben ganera jausi be.

Geure buruben ganera ta gure ondorenguen ganera be bai.

Paxiztak, Nabara'n jagi ixan ziran. Eta euren erija, Juda Iskariote'k bere Irakaslia saldu ixan eban lez, atzeritarai, Nabara'ren areyuei saldu ixan eutsen.

Gero, bariz, Araba'ra sartu ziran, andik Gipuzkoa'ra elduteko.

Eta paxizten oñak lurari ukutu ixan eutsoen toki gustijetan, jauparijen baten odolaz lura gorituta geratu ixan da. Gipuzkoa'n, bertan, paxizta anker erailtzale gaiztuen aiztopian jausi ixan diran jauparijak, berein ixan dira. Eta jauparijak ixan eztiran kistar-eredurik eredugarijenak be, aneika.

Paxizta odol-zalien oñak Euzkadi'ko lura zapaldu ixan daben toki gustijetan jausi ixan dan euzkotaren odol gardena, erugien odol kutsugia ixan da. Eta ondiño be, Pilatus'en otsein ankeroi, Bizkai'ra sartu dagijezantzat -eta, bidiak ereztuten ibiliko dira, euzko-abertzaliei eskarak, areyorik-are yuen bixitzeakañokuak zainduten diraucn Bizkai mate onetara, paxizten erailketarako edenouta daguan aizto erailtzalia ekarten.

Baña ez. Gaiztoki gustikuak eta gaiztokira-bidian dabiltzan gustijak lagun dabezala gaiztokiko txerena bere adar aundijakaz agertuko ba'litz be, Bizkai'ko zabaletan oña ipintia jaditxiko leuken baño len, Mikel Gongotzon Deunaren gotzon-ezpata donokitara guda-oneratuko litzake, ta txerenaren menperatzia jaditzi arte, guda-oñian iraun be.

Lenago be, txerena, Mikel Gongotzon Deunaren ezpatapian jausi zan. Eta orain be, ¡eskijer ixan, irakurle!, Mikel Gongotzon Deunaren ezpatapian jausiko da. Egijaren gurendea urian dogula bixi gara. ¡Bai bein!

卐 卐 卐

Egijaren gurendea loratuten dan artian, baña, paxizten suizkilupian jausi ixan diran jauparj ta eri-gixon, gusti-gustijen aldezko otoj sutsubenak donokiratuten alegindu biar gara.

Peñagarikano'tar Joseba 64 urteko jaupari agurgarija be, otoyon artian jariko dogu, ildakuaren goguarentzat, otoya lako bezuzik eztago-ta.

Beraz, irakurle, otoi, ¡otoi eta otoi..!

IBON.

Matxinada -izparrak- eta

Paxizten artian toki txara dago, edo agintari txarak dira, alde aretatik eri-aldezliekana igeska datorzan gudarijak, asko be asko dira-ta.

Atzo be, Elgeta'ko guda-oñera, paxizten aldetik gudari bi, igaro ziran: Orense'ko gudari gixagaxo bi.

卐 卐 卐

Gudari bi oneik ikusi ta izketaldi bat igiteko zorija be ixan dogu. Bata kabua da. Bestia, gudari utsa.

Eta bijak dira euren aberkidiak, bijak orensetarak.

Txarto jantzita agertu ixan dira: gudari-txamarakaz eta Elgeta'n ukar-antzo emon ixan eutsiezan prakakaz.

卐 卐 卐

Prakak eta oskijak be, paxizten gudarijak, apurtuta erabilezala, esan eben. Eta jatekuakaz. bariz, txarto be txarto ebiltzala, iñoz kendu bako gosiaz ebiltzala-ta.

Gosia zijotzat artuta guda - oñera juateko muker-antzo agertuten diranak asko ixaten ei-dira. Ezpairik gogorenak sortuten dabezan zijua be, orixe ixaten ei-da: gosia.

卐 卐 卐

Paxiztekandik iges-egin gurea agertuten daben gudarijak, asko be asko zirala, esan euskuben, eta lenengo abagunia ixaten dabenian igituko diranak. gudarijen artian aurez egozala.

卐 卐 卐

Guda-oñetan aurerengo lekuban jarten ebezanak, gudarijak ei-dira, ixan be. "Palankistak" eta ereketiak, ostera, atzeratxu - samar geratuten ei-dira.

Eta jatekuak be, arentzat, "palankista" - ereketientzat, obatxubaguak ixaten ei-dira, bata ugaritxubaguak be.

卐 卐 卐

Emen jazoten danaren baririk, bariz, ez ei-dautsie emoten. Eta gobernu-aldeko gudarijetzaz-eta ezer esaten dautsienetan, guzura ta abara baño ez.

Bilbao'tik bost aneurkin urun aurkitzen zirala jakinazo ei-eutsien. Eta Bilbao'ra sartuten ezpa-ziran, sartu, gura ezebelako zala.

卐 卐 卐

Guda-izkilurik ez gudaririk ezebela esan-ondoren, baña, beste izpar bakan au be emon ei-eutsien: gobernu-gudarijak, galduta ikusten diranian, gaspel-suaga itokorak botaten asiko zirala, bai, ta itogai diran gaspel-suagetatik gaizkatu al ixateko, neurijak artzia ona zala. Eta neurijak artzeko, gudari bakotxari, gaspel-suagaen aurkako aurpegi-estalki bana emon ei-eutsien.

卐 卐 卐

Elgeta'ko guda-oñera eldu ixan diran orensetar gudari oneik gaspelsuagatzaz diñuena, goguan artzeko lakoxe izpara da.

Itogai diran gaspel orejk botaten lenengo asiko diranak, eurak dirala esan leike, ba. Eta guda-lagi gustijen aurka dagozan gaspel orejk guda-oñetara ta enparauko uri ta basurijetara botaten asiko diran baño len, itogai orei aurka egiteko gai dan zeozegaz gertetja, ondo ixango litzake.

Eurak, antza dagonez, aurpegi-estalkijakaz-eta abar, gerteuta aurkitzen dira. Gu be gertau gadixan; gero gertetakuan atzera begira geratuten ba-gara, gero berandu ixango da.

卐 卐 卐

Paxizten aldetik emendiko aldera etori ixan diran orensetar gudari bi orejk esan ixan dabena entzun ixan dabenak, guda-auzi onen gurenda-bidera elduteko artezkari-ugelak eskubetan dabezenak ixan dira, bai, ta gaspel-suagatzaz esan ixan dabena be, aretaz entzun ixan dabela-ta gagoz.

Beraz, itogai diran gaspelen aurkako biar diran aurpegi-estalkijak be, garaya danian, emen ixango doguzala esango geunke.

卐 卐 卐

An geratu ixan diran enparauko gudari-lagunakin gomutetan ixan dira. Eta ganeko egunen baten, emetik juango yakezan burnizko burdijak eta abar ikusten dabezenian, ikusi, emengo gudarijak guda-izkilu barik esku-utsian aurkitzen dirala zinistuta dagozan gudari areik, igeska asiko zirala, esan euskuben, gudaketeari eusteko baño guda-oñetatik iges-egiteko gogotsubago egozala-ta.

卐 卐 卐

Ikusten danentz, ba, Euzkadiko guda-oñetan aurkitzen diran paxizten aldezlien adoriaz, garaikurez burestunduteko itxaropen aundirik exin ixan leike.

Eta orensetar gudari bi oneik atzipetu ezpagatubez, atzipetu, Euzkadi'ko guda-oñetatik Ebros arantzekua, egun batetik bestera eragiteko eran aurkitzen dira. Olakorik jazoko ba'litz jazo, paxizta bijozge odol-zaljok Bilbao'ra sartuta Bizkai'ko euzko-jauparijak eta abar erailten ikusi gura leukiezan "parixetarak", negarez asiko dira. Eta negar ta negar, istanda egin artian eztira ixildu be egingo. ¡Paxizta orejk ixango dabezan sabel-miñak, benetako sabel-miñak ixango dirala esan leike...!

Euzkadi'ko gixon ospetsubak

Gixirudi artezi au, Astarloa Aba agurgarija ta euzkeltzale ospatsuba ixan zanarena da. Durango'ko Ezkurdija egurastoki edefian aurkitzen da, durangar ereketiak-eta jaramon aundirik egiten ezpa-dautsoe be.

(Oxanguren'en argazkija.)

Zuzentza ta Gogo-Lantze Zaingoa

AZALPENA

Osakintza Ikastola Bilbao'n eratu, Euzko - Irakastola Nagusiaren oñari izan zedin. Ona urilaren 9'garenez eman eta 12'gareneko Agintaritz-Egunerokoan argitaldua izan zan Oroaginduak sortu-erazi zuan Batzordeari, ikasi zezan, utzi zitzaion gaia. Eta Batzordeak bere zeregiña amaitu digularik, bere onuemate elburua mamiturik eskeintzen digu.

Ortaz, Batzordearen iritzia agindu biurtzeko unea eldu zaigu. Gogo-lantze bidean aurera Euzkadi ikusi nairik bizi ziranak, ase-aldi bat badute beñepein. Izan ere, edestia zear ez baitda asegari osorik nabaitzen: Oñate. Iratxe eta Gazteiz aitatzeak, Irakastola Nagusia noizbait ikusi al izatea somatu erazten bazuten ere. Irakastola Nagusi oso-osoaz mintzo gera noski: gizaldiak zear izen onentxen mendean adieraziak izan diran irakaskintza guziaz jantzitako Irakastola Nagusiaz alegia. Eta irakaskintza abek euzko-erijaren osagari diran aldetik artzen diturgula, eta euzko-gogoaren azalpen guziak—euzkera batezere—sendotu ditzatela lortu nai degula, esan bearik ez.

Aldiaren joan - etoriak, Bitarteko Jaurlaritzari gaurkoan abagune bat eskeñiak izaki, azi bat erein diteke. Euzkotaren abertzaletasunak, landare biurtuko al-digu. Egun estu abetan sortu-eraztera goazen Irakastola Nagusia, gogo-lantzeari buruzko ekintza afigarítzat noizbait artua izango al da: eta euzko-abendak, jarioka dauzkan azkatasun eta aurerapenaren kutsuaz, luditar guzien jakintza iguztziko al du.

Euzko-Irakastola Nagusia eratzerakoan oso aintzakotzat artu bareko zer-nolak badira noski. Luraldeari, ikaslez ornituko duan erijari, irakasletzari eta irakaskintzari dagozkionak alegia. Euzko-gogoaren ezaugarriak, Irakastola berari txertatzea ere etzaigu aztu: euzkera, gizarte-gaiak eta legedi-eralguntza batik-bat.

Ainbeste eskubide erabili ditezkela ikuste utsak, erabakiak banaka artzea eskatzen du. Baño oñari-erabakia bakara izango bada ere, atalak beenik ongi muetatu ditzaizkiigun.

Akats gabeko ekintza egiterik ez darabilki Burukide onek bere ustetan. Azi bat opa du. Bide bat. Euzko-erijak, landuaren landuz oparotasun erpiñera igo dezan. Baño opa duana, itxaropenez beteta, uste osoz ornituta opa du. Zuzentza ta Gogo-lantze Burukideak esku-artean darabilkin arazoaren etorkizun ona, euzkotaren laguntzaren gain uzten du. Eta beronek duan garantzia, zein margo biziz aurkeztu nai luken: gaztediaren kemenak eta dezaketenen ogasunak, "Euzko-Irakastola Nagusiaren alde" leia bizian ikusi nai bailituzke.

Egokia balitz, ondoren idatzia izango dan agindua ber-bera, izen aintzagariz nastuko luke Burukide onek: gaztediarentzat eredu eta dezaketenentzat zirikalari izan zitezean. Ala, gazteok balukete asaben artean norengan begiak josi: Rada'rengan, Edestiari buruz. Servet'engan. Osakintzari buruz; Bitoria'gan, Lege-gaiei buruz; Elupar'engan, Kimiari buruz; Loyola'gan. Irakaskintzari buruz; eta bat-batean ezpañetara ez datozkigun beste ainbeste eta ainbeste izenengan. Dezaketenei, beriz, "Erijaren Adiskideak" zeritzan Bazkun aintzagari bat izan zala oroit-erazi nai nieke. Orainaldiko kimia barutian ain jakintsu dan Proust, "Erijaren Adiskideak" Bazkunaren babesean irakasletua bait-genun. "Emakumeendako Bazkuna,,'k berari zor baitdio sortzea, "Indietakoak" eta beste ainbeste aberastasun iturri izan diran Bazkunak bezelaxe.

Oroagindu onek bere aipamen sailean ezin "Euzko-Ikaskuntza,,'ri iñolaz ere uko eman. Gure Irakastola Nagusia eraikitzeko gaur darabilzkigun gaiak lantzen jardun izan baitda 1918 'garen urtea ezkeroz. Jakintza-leiak, Batzarak, eztabaidak zabalkunde-lanak, erjak mamitu duan asmo au eldu erazi duten Bazkunak. "Euzko-Ikaskuntza,,'ren arnariak dituzute. Azkenik, urilaren 9'garreneko oroaginduak sortu erazi zuan Batzordeak egindako lanak ere, ezin aipamenik gabe utzi: merezi dute-ta.

Euzko-Irakastola Nagusia sortzea dijoa bai. Eta bere laguntzale sutsu izan ziran adiskideen odolez ezetuta sortzera dijoakigula nola aztu? Guda beltz baten atzaparetan degu Euzkadi. Eri bezela iraun al izateari eutsi nai dio. Eta auxe dala-ta, Irakastola Nagusiaren sort-uneari josita Edestiaren oriak zenbait izen jaso dituzte: ilda erori diran zenbaitzuenak alegia. Guda-oñean batzuek: Euzko - Irakastol aldeko irakasletza, erjotz aintzagari batez azkenduaz. Gizartea baño basoaberartea dan arerioen mendean dauden urietan besteak. Jaio-zoria baño len, ziñopak baditu Euzko-Irakastola Nagusiak. Guda-oñean erori ziran Elizondo eta Lopez Uranga osagileen izenak. Ikastol - nagusitarak Aberiari opa dioten lenengo omena osatzen dute. Ain zuzen ere, osakintza lanetan ari zirala, izkiluz kanpoko eginbearetan beraz, erori ziran. Aritzimuño'tar Joseba, Jauregi'tar Koldobika eta Olazaran'dar Ilari: ona erarik bilauenean eraildako beste iru euzko-semeen izenak. Euzkadi'ren jakintz eta erti erikciari aizemanaz bizi zirala-ta, beste erurik gabe, erail dizkigute faxistak; beste ainbeste bezelaxe. Ona jaiot-zorian dan gure Irakastola Nagusiak, etorkizun diran gizaldientzat ereuu-maiara igoko dituan euzkoak. Ona, ondorengokoak gogo-lantze liburua ezariko dituzten izenak. Euzko-jakintzari opa zioten neurigabeko nekaldia izango al da bai gogo-lantze bidaritentzat gudari eta eragile giartsua.

Diabru-labarren

(Baso-ibilketa bat)

(AMAYA)

Gerotxuago bariz, "Txilibristo,,'tzaz entzunikua, egija zala ta etzala, neskato-mutikuen artian eztabaida politak sortu ziran. Ori zala-ta, ango didara ta ango zaratia...! Gauza baregarijagorik oratik.. Arein esakera politak, negara bera baretuko eben...

Euren arteko nastia ¿nok atondu baña? An sortu zan matasia, aritik -marira ¿nok ari-banandu...? Oretarako, begi-belarijakaz bost zentzun biar ziran... Alako nastia, ume batzuk atara leikijula be...!

Eurek asirikua eurek amaitzia ondoen ixango zala-ta, guk, gorason bez, jaramonik bez ta kitu... ¡Or konpon!

Alako baten baña, bazkaritarako ordua be ixango zala-ta, umieri, euren ezta-baidetatik alderdutiaren be, bazkaritarako dei-egin geuntsoen. Eta, oretarako leku egoki baten bila juan gintzazan

Orduan, neskato - mutiko gustijak, euren eztabaida ta asariak alde-batera itxita, uso otzan-otzanok bailitzazan, beriala geure atzetik etori ziran. Eta, danok aizkide etori be... Euren asaria, ego-axiak mendi-ziar eroan ixan baleu be, uriñago etzan juango. Euren bijotz samuretan, gorotorik arian be ezegoan...

Umiok olakoxiak dozuz; on-onak, bakun-bakunak... Bijotzian ar-bakuak... Eurak lakuak bagintzakez...! Gauriko egunian, bate-batek egiz esaten dau bai.... "Umiakaz nabil... ondo nabil."

Bazkaritarako, lekurik onena aurkitu gendun, "Iturriotz" aldeko pagodi eder-edera Zugatz-mardoen adar-oritsuak zirala-ta, bertan, ori-artian laprast-eginda erduten ziran ure-izpi politak ezik, eguzkirik. arian be etzan sartzen; kerizpe itzaltsuan bariz, iturritxu bat ur garden - ozkirija gozaro -gozaro emoten... Axia bera be, geure alde ebilan; ipar-axe biurtuta, barijen bari putz-egiten asi zalako, gustijoen atsegingari ebilan eta. Ora ba, egun atako bero gogaikarijari iges-egiteko lekuaren berezija...!

Aldian genduzan janarijak jaten asteko, danok bata - bestiaren onduan ereskan jezari gintzazan. Eta, jan-ureko otoitzak egin biar ziran une-berian, olako txanguetan beti egin oi dogun lez, jankidiak edo majkidiak zenbatuten asi gintzazan. Eta ori egiñikuan ume baten utza oartu gendun; mutikuen artian, bat gitxiago e[...]

—Zuen artian bat gitxiago d[...] ikusten yuagu...—mutikueri esan[...] tsoen. Sinboren nun yagok...?

—Guk eztakigu...—lenagoko [...] lez "siku ta lior" erantzun eben.

Ori entzunik, ikaratu gintzaz[...] ko "andapara" andira edo, ja[...] zaneko oldozkunak zirikatuta, e[...] yagoan estutu gintzazan...

—¡Nun dagoan eztakixuela [...] zue...?— estututa esan geunt[...] Ia, ora beko "andaparara" edo [...] yakun... Ontxe gayagozak [...] ¡Zuek lakuakaz datorenak be...!

—Ez, ora ezta jausi; ontxe [...] go ementxe bertan geure ondo[...] da-ta. Gustijak abo-batez esan[...]

Olantxe ixan be; bere bila [...] tzazan-an, ba, Sinboren mutik[...] inguruko zugatz-enbor baten [...] jezarita egoala aurkitu gendun [...] rez egoan... Bai-ba. Sinborent[...] ogi ta ez arto, bere etxekoen [...] gure atzetik abijauta, gerokua[...] mutarik bape buruan ezebala, [...] raz-patxaraz mendiratu zan et[...] bariz, an goyan, bere sabeltxus[...] tekc ezetariko janaririk eze[...] sita negar egin biar gaxuak...

Olan ikusita, mutikuari, gey[...] garik ez-egijala egin esan ge[...] Eta, daukonak eztaukonari [...] erukizko egiñena be, ba zala-[...] karija emoteko asmuz geure [...] etorteko aren eta aren egin ge[...] Eta, bakotxak geunkonetik "[...] txu" emonagaz, bazkari ugeri[...] -aureratu geuntson.

Orenbestegaz mutiko politare[...] Bere malko gardenak legortz[...] pirik gozoena ori ixan zan; [...] sia asetutia... Eztok txarena ix[...]

Eta, ordu-berian, jan-aureko[...] tzak eginda gero, gustijok bat[...] karija jaten asi gintzazan. "Itu[...] ardau zuri gozoak ondo lagund[...] ratzen genduzan janarijak ede[...] ten urda-ileratzen genduzan.

Bazkari bitartian, Sabiñetxu[...] tuak, idaztiñotxu batetik gau[...] rik asko irakuri euskuzan. A[...] liak ixanda, geure euzkera g[...] ederagoz, aberijaren bitxirik o[...] ¿zelan aztu...? ¡Ezetara bez...!

Onetan, bazkari azkenian, [...] erpiñetara txori piloak etori zi[...] tijak batian eresi ederez abestu[...] Bazkari osterako, gauza atse[...] jagorik...! Kardantxilo txiki b[...] ragariro abestuten eban. Ben[...] tzcnoz beste barik txikitako ab[...] gomuratu yatan...

Txori-kardantxilo
nun dozak umiak...?
datoren urterako
azi egiztazak...
Oi txorikumak kolkuan
Oi txorikumak gili-gilikan.

Ariek kantauk yuek
txiruliruli-txiruliruli
arek esango yuek
noz dan udabari.
Oi txorikumak kolkuan
Oi txorikumak giligilikan.

Txorijak gotik eta guk beti[...] tirik asko axetaratu genduzan [...] rija olan umorez igarota, and[...] batzuetara, baso - bidiak egu[...] igaro biar genduzala-ta, tapa[...] mendija-bera abijau gintzazan.

Umiak, etxerantzakuan be, [...] ti bat urez igaroteko gurarija [...] eben; eta, euren gurarija bete[...] beriala ortoztuta, ordu-beteko[...] uretan igaro eben.

"Aitz-bidia" asi baño len, [...] be jan biar genduela-ta, bide[...] landa bedartsu baten jezarita, [...] txuetako janarijak jaten gogo[...] gendun. Igalijak eta ogija "pa[...] te" jaten gendun bitartian ba[...] ñolako eiztari bizkora lez, [...] adi zoli-zoli gengozan.

Mañari gure eritxu kutuna, basuri polita ta Durango u[...] begi-aurian geunkozan. Urkio[...] dija, mendi eder ta jagija be[...] ikusten gendun. Bertara beg[...] Andoni Deunakaz gomutau gi[...] eta orduan Deun matagari o[...] tartez Jaungoikua'ri gentza-a[...] katu geuntson. Euzkadi geure [...] be jabon egijala be aren egi[...] tson; bata Bere guramena ixa[...] ro, euzko-erijari azkatasun don[...] egijola be gogo-beroz eskatu g[...]

Gerotxuago, an ederto atse[...] gero, berantza ta berantza e[...] dun; eta ibilijak ibili eginda [...] eri inguruan gentozala, elexa[...] pae-nagosijak Neskutza'ren a[...] ko "agurmaritakuak ots be[...] ebazan; eta kanpayaren ots [...] arek, aitz-mendijetan durund[...] -gozoa egin eban euzko-asabar[...] deunak Euzkadi geure aberija[...] dez Neskutza'ri otoitz egiten [...] la irudi yakun...

Bitartian, ixarak, ortzian [...] ta biñaka agertuaz dizdirarik p[...] kaz goiko oyal urdiña apaindut[...] larik, donokiko edertasunatzaz [...] murez itz egin euskuben... Eta [...] ezkutuki miragarijaren une [...] geure gogo-bijotzak berarizko [...] -ixilkor batek gozaro-gazaro [...] ebazalarik Miren aintzagarijar[...] noro iru bidar egin oi dautzag[...] tzon-agura abesti gozoz zuzend[...] tson...

Aingeru batek Maria'ri
dio "eskarez betia"
Jaungoikua'ren semiari
emon dautzazu sortzia
Goiz arats ta eguerdietan
ama goratzen zaitugu,
aingeruaren itzak eurak
guk ber-esaten dautzugu.

MAÑAR[...]

Ain tinko sortutako Irakastola Nagusiak oso gutxi izango dira noski ludian, Euzko - Irakastola Nagusia ez baitda adimen argi baten arnari soila. Adimen baten argia, txit dirdirakora izan aren, ezin iñolaz ere aitatu degun añekoa izan. Ezin esan ditugun iraun -erazigarien indarik sortu ere. Gure Irakastola aundiuste egaria ase nairik aundikiren batek sortu erazitako egintza izatea, oraindik eziñagoa litzake noski. Ez da onelakorik. Erijaren ekintza da. Eriko mala guzien laguntzaz lortutako egintza erikoia. Irauntasunari buruz, arnasa eriagandikantxe datorkiona.

Orengatik, Euzko-Ikastola Nagusiak Erijak bajeztu zuan Euzko-Araudiak agintzen duan bezela, eriko jende txeenai ikasbide-ateak irikiko dizka, ta gai eta zaletsu diranak begiratuta bakarik bere ikasleak aukeratuko ditu.

Abek guziak gogoan artuta, Zuzentza ta Gogo-lantze Burukidea aurkezle dala, eta Euzkadi'ko Jaurlaritzaren ao-bateko erabakia beteaz, baieztutzen det dijoan.

OROAGINDUA

1'go. atala. Agintaritz izakeraz jan tzitako Euzko-Irakastola Nagusia sortua izan bedi. Beronen burutza, ordezkariak eta eginkizunak, Zuzentza ta Gogo- lantze Burukideak izendatuko ditu.

2'gn. atala. Euzko-Irakastola Nagusiaren Osakintza Ikastola, Bilbao'n eratua izan dedila erabakitzen da. Eta aurtengo Lotaziiaren lenengo egunean asiko dira irakasketak.

Zuzentza ta Gogo-lantze Burukidearen esku izan bitez, Ikastola au eratzea, Irakasle eta laguntzaleak izendatzea, eta irakaskintzaren zer-nolak tajutzea, ikasketa bakoitzari dagozkionak banatuaz. Orobat, Ikastola onen aritzeari buruzko gañerantzeko erabakiak artzea.

3'gn. atala. Euzko-Irakastola Nagusia osatuko duten gañerantzeko Ikastolak sortu - eraztea, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Oroaginduen bidez egiña izango da.

Bilbao'n, 1936'gn. azaroaren 16'ean.

Euzko-Jaurlaritz Lendakaria. AGIRETAR JOSEBA A.

Zuzentza ta Gogo-lantze Burukidea, LEIZAOLA'TAR JOSU M.

EUZKADI'KO AGINTARITZAREN EGUNEROKOA

Azila-18'garenai yaokan

ARKIBIDEA

1.—ZUZENTZA TA GOGO-LANTZE ZAINGOA.

Oroagindua.—Euzko-Irakastola Nagusia sortueraziaz.

2.—ERI-ZAINTZA ZAINGOA.

Oroagindua.—Euzko-Udalak bereala osatuak izan ditezela aginduaz.

3.—OGASUN ZAINGOA.

Oroagindua.—C. A. M. P. S. A. Bakunak Araba, Gipuzkoa eta Bizkai'n dituan gajak eta eraman-ekartzerako laguntzaleak erekisatzeko aginduaz.

Agindua.—Amuriza Uraga'tar Joseba. Jabetza Zuzendari Nagusi izendatuaz.

4.—GINTZA ZAINGOA.

Agindua.—Tximist-indara ireintsi oi duten tresnatxoak nola saldu bearko diran adieraziaz.

5.—ERKI BANAKARITZA.

Bizkai'ko Aldundia. — Lanariei dagozkion erabakien baiezpena.

6.—ERANSKIÑAK.

España'ko Diru - Etxea (Bilbao'ko Ordezko-Etxea).—Kontu ondarei dagokien iragarkia.

Durango'ko Epailetza Argibidelaria. Aginduak.

Gernika-Luno'ko Udala.—Iragarkia.